

Ikastolako lehen eguna

- Peio : Egun on, aspaldiko Mikel ! Zer egin duzu bi hilabetez ?
- Mikel : O, gauza franko. Jakin ezazu ez naizela aspertu. Uztaileko bigarren astean, surf ikastaldi bat egin dut Angelun. Bikaina ! Aro ona ukan dugu eta egunero itsasoan ginen. Bukaeran ontsasko moldatzen nintzen ene taularekin. Eta zu ?
- Peio : Badakizu ene burasoak bereziak direla beraz lehen hilabetean amarekin egona naiz Uztaritzen eta bigarrenean aitarekin Pauen. Ni ere ez naiz enoatu. Aroaren arabera egin ditugu ateraldiak hondartzara edo bizikletaz edo mendira. To ! Hara Gorka ! O ! O ! O ! Gorka !
- Gorka : Hor zaretea lagunak ! Zer berri ?
- Mikel eta Peio : Zaharrak berri !
- Gorka : Opor onak pasatu dituzue ?
- Mikel : Sooooobera onak ! Zer pena bururatuak direla !
- Gorka : Zuk errazu ! Haste orain komedia : lan eta lan eta lan ! Omiasainduko oporrak berantetsiak ditut. Neskak ez dira oraino hor ?
- Peio : Bai, bai, hantxetan dira beti bezala kalakan ari. Segur naiz mila sekretu badituztela elkarri kontatzeko. Beste mutikoak ikusi dituzue ? Espero dut badakitela sartzea gaur dela. Hara, heldu dira.
- Xalbat : Iepa ! ontsa zaretea ? Nik hasteko gaitzeko beheitikoa ukan dut gau honetan. Ez dakit sobera janarengatik edo irakasleen ikusteko plazerarengatik zenetz. Dena den gauaren parte bat airean pasatua dut.
- Xabier : Haste miseriak. Ikusi duzue ABk zer egin duen Agenen kontra ? Zer *matxa* !
- Gorka : Han zinen ?
- Xabier : Bai, ene ottorekin.
- Gorka : Zer xantza ! Ez dut behin ere ABren partidarik ikusi.
- Mirentxu : Jadanik kirolaz mintzo zarete ?
- Xabier : Eta bai ! Badu bulta bat ez dugula elkar ikusi eta beranta hartua dugu gure solasetan. Holakoak gara gu, mutikoak. Berehala gai serio setan sartzen gara.
- Mirentxu : Bo, bo, bo ! Espantu kakaz hantu ! Guk, Graxi eta Ainararekin frankotan elkar ikusi dugu. Gau batez ere kanpatu dugu Graxiren baratzean.
- Graxi : Gauaz azantz bitxi batzuk entzun ditugu eta xifrituak ginen. Nehor ez zen menturatzen ikustera zer ote zen. Hatsa doi-doi hartzen genuen kanpoan zenak ez zezan entzun.
- Antton : Eta zergatik ez duzue oihu egin ? Zuen burasoak etorriko ziren !
- Ainara : Burasoak ohera joanak ziren. Haien ganberako argia itzalia zen eta pentsatzen genuen haiek iratzartzeko artean hiltzaileak gure garbitzeko astia zuela. Horregatik mutu egon gara.
- Antton : Eta gero zer gertatu da ?
- Graxi : Urratsak gure oihal-etxolara hurbildu dira. Gu elkarri lotuak ginen, ikaratuak. Azkenean gure hiltzailea « miauka » hasi da eta ulertu dugu Graxiren gatua zela ! Zer irriak !

Antton : Ttulak zarete, zinez ttulak ! Gatu baten beldur ! Ni hor izan banintz...

(Urruntxeago, neska bat bakarrik dago.)

Graxi : Zu hor izan bazina, kaka eginen zenuen galtzetarat eta kitto ! Zer uste duzu ala, gu baino gehiago zarela ?

Mirentxu : Nor da neska hura ? Ezagutzen duzue ?

Ainara : A, bai ! Irakasleek errana ziguten hain segur ikasle berri bat izanen zela. Hura dateke.

Antton : Goazen harekin mintzatzeraz. Gaixoa, ez dugu bakarrik utziko !

Xabier : Bai, eta gainera polliskoa da ! Goazen elkarrekin.

Denek : Egun on !

Peio : Zer duzu izena ?

Itziar : Itziar Mendiburu.

Ainara : Beste ikastola batean zinen ?

Itziar : Bai, Donapaleuko ikastolan baina aitak lana galdu du eta Uztaritzera jinak gara bizitzera pentsatzen baitu, Baionara hurbilduz, beste lan bat aiseago atzemanen duela.

Mikel : Haurriderik baduzu ?

Itziar : Bai, biga, baina zaharragoak dira eta kolegioan dira.

Antton : Sartze hau ez zaizu hain segur erraza. Guk bederen lagunak hemen ditugu eta irakasleak ezagutzen ditugu.

Xabier : Zinkurinka ari gara baina ororen buru denbora onik pasatzen dugu elkarrekin. Are neskak ! Futbolean hasten gara ? Taldeak eginen ditut.

Xalbat : A ez ! Zure taldean beti azkarrenak hartzen dituzu !

Drinnnnnnnnng !

Mirentxu : Kaka zaharra ! Ez dugu astirik ere jostatzeko !

*Jokalariak : Peio, Mikel, Gorka, Xalbat, Xabier, Mirentxu, Graxi, Ainara, Itziar, Antton.
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti*